

# Abarrak

JON TORNER

## Haurtzaro mutuegia

*Stitches*. David Small. Random House Mondadori (2010).  
336 orrialde (18 x 23,5 zm), zuri-beltzean. 20 euro.



KRITIKARI eta irakurle askorentzat iaz argitaratutako komikirik ederrenetakoa da David Small estatubatuarren *Stitches*. Badira batzuk, ordea, hainbesterako ez dela diotenak. Horietako bat naiz ni. Autobiografia honek, genero bereko beste hainbat obrak egiten duen bezala, noiz edo noiz hemen aipatutako Craig Thompson-en *Blankets*-ek, esaterako, autorearen haurtzaro-gaztaroa kutsu dramatikoekin jasotzen du. Dramatikoei. Egia da Smallen haurtzaroak –eztarriko minbiziak markatua– gogorra behar zuela izan, hark isilean sufritutakoa nekez imajina dezakegula, baina istorioa tonu alai edo ironikogoa erabilia kontatzerik bazegoen, “seriotasuna” anputatu barik, alzheimerri eta autismoari heltzen dieten *Arrugas* eta *María y yo* komikiek egiten duten moduan. Badira bideak gai batzuk (gaixotasuna, bakardadea, beldurra...) beste era batean kontatzeko, hausnartzera bultzatuz, gainera. *Stitchek* lortzen ez duena, portzierto.

Isiltasunak markatzen du narrazioa. Etxekoek zarata bidez transmititzen dituzte sentimenduak: aitak boxeo-zakua astinduz, amak sukaldeko armairuekin kolpeak emanez, anaiak bateriarekin... eta Smallek bere marrazkiekin. Zuri-beltzezko marrazkiak, komikikoak, esan nahi dugu, ez dira izugarri landuak, baina egia zor, euren apaltasunean, paisajeak (argi-ilunak) eta bereziki pertsonaien keinuak ongi sintetizatzen dituzte, sarri beldurgarri, batzuetan patetiko bilakatzen diren gurasoenak bereziki. Isilune luzeak ditu istorioak, apenas du ahots narratibo eta elkarrizketarik, baina irudiek lortzen dute hitzez esaten ez dena (edo esaterik ez dagoena) transmititzea. Tamalez, etengabe atmosfera dramatiko horretan igeri egiteak ito egiten du eta, are okerrago, gaiari buruz mirezi bezala hausnartze-ko zirrikiturik ez du uzten.



Vitoria-Gasteiz  
**WG**

Gasteizen euskarazko  
hauek ez galdu:

### BERTSO HITZALDIA

MAIALEN LUJANBIO

Azaroak 7, 20:00

Ibaiondoko GE

### NOBELA BELTZA EUSKERAZ BIBLIOGRAFIA ERAKUSKETA

Azaroak 21 - abenduak 7

Judimendi GEko helduentzako liburutegia

### HIRIAK ETA NOBELA BELTZA

HITZALDIA JON ARRETXEREKIN

Azaroak 30, 19:00

Judimendi GEko helduentzako liburutegia

### KONTZERTUAK

BIZARDUNAK

Azaroak 4, 22:30

Hell Dorado

KATAMALO

Azaroak 6, 20:00

Jimmy Jazz

### KULTUR CAMPUS: LABURMETRAIAK

GOTZON ELORZAREN FILM LABUR

DOKUMENTALAK

Azaroak 24, 20:00

Florida Zinema,

### ANTZERKIA

EURIA ESAN ETA EURIA ERORTZEA

Azaroak 22, 20:30

Principal antzokia

EMEKI-EMEKI URTZEN

Haurtxoentzako antzerkia

Azaroak 30, 18:00

Pilareko GE-ko familia liburutegia

MUNSTROA

Azaroak 29, 20:30

Parral taberna

### IPUIN KONTAKETA

IKUSI-MAKUSI

Azaroak 16, 18:00 (4-6 urte)

Arana G.E.-ko liburutegian

LUR ETA URTZIREN BIDAIA

Azaroak 21, 18:00 (6-9 urte)

Ibaiondoko gizarte etxea

ADI EGON, LASTER  
EUSKARAREN ASTEKO PROGRAMAZIOA!

MAITE DUZUN HURA,  
EUSKARAZ!



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala